


Hiru urtetan garatuko dira enpresetako euskara planen helburuak

Euskararen erabilera bermatzeko proiektua diseinatu dute aurten EAEko 56 enpresak

Aurten ere hainbat enpresak jaso du dirulaguntza 2001-2002 urteetan euskara planak egiteko. 56 enpresak jaso du aipatu laguntza, hau da, iaz baino 10 enpresa gehiagok.

Enpresa hauen jarduera askotarikoa da, hala nola: automozio osagaien fabrikazioa, elektratresnak, altzariak, trenak, trökel-gintza, makina-erreminta, aeronautika, teknologi ikerketa, injinerutza, aholkularitza, ikuskatzailetza eta lege-aholkularitza, gizarte zerbitzuak, enpresetarako zerbitzuak, elkargo profesionalak, e.a.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburu da planen bidez enpresetan euskararen erabilera bermatzea pixkanaka. Horretarako, enpresa bakoitzak bere ezaugarrien arabera proiektua diseinatu du eta hiru urtetan garatuko dituen helburuak zehaztu.



LEA BARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA / KUNTZA

Dirulaguntza, hortaz, euskara planaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren bitarteko edo ekintzetarako erabiliko da. Dirulaguntza-gaiak honako hauek izan dira: testuak euskaraz egokitzea; planaren helburuekin zerikusi zuzena duten langileen euskara prestakuntza eta herri administrazioekin idatzizko

harremana izan eta euskarazko klaseetara joango diren langileen ordezkapena; lana euskaraz egiteko aplikazio informatikoak erosi edo garatzea; planaren diseinua, eta planaren komunikazioa, jarraipena eta ebaluzioa egiteko lanak.

Guztira 117.603.437 pta. esleitu dira 2001 eta 2002 urteetan zehar burutuko diren lanetarako.

Erakundeen arteko lankidetzaren areagotuz doa

EBPN garatzeko eta Hizkuntza Normalkuntza Zerbitzuak eratzeko laguntzak jaso dituzte 27 udal eta mankomunitatek

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

Aurten ere dirulaguntzak bideratu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak toki entitateetan (udal, mankomunitate...) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko eta Hizkuntza Normalkuntza Zerbitzuak eratu edo sendotzeko. Aipatu dirulaguntzen bidez, erakundeen arteko lankidetzaren areagotuz doa urtez urte, egitasmoak hobetuz eta egitasmoak burutzeko behar diren giza baliabideak indartuz.



ARGIA

Horren adierazgarri, 33 milioi banatu dira 27 entitateen artean (iaz baino 5 gehiago), euron Hizkuntza Normalkuntza Zerbitzua eratzeko, kasu batzuetan eta sendotzeko, besteetan. Zerbitzu honen egiteko nagusia Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatzea izan behar du.

Bestalde, 67 milioi banatu dira 53 entitateen artean (iaz baino 13 gehiago), EBPN udal barruan eta udalerrian garatzeko.

EUSKARAREN

Berripapera

sumarioa

1 • Trentino eta Txileko ordezkariak Euskal Herrian

2 • **PERTSONAJEA:**
Linda White

• **LABURRAK:**
Gabriel Arestiren poesia orkestraturik EHU eta Egunkariaren graduondoko bi titulu

• **AGENDA:**
Expolingua Berlinen azaroan

3 • *Xagux@arrak:*
Donatoren Tertulia,
40 ikastetxetara

• Euskara ikasteko dirulaguntzak Donostian

4 • Euskara planak enpresetan

• EBPNa udal eta mankomunitateetan

Trentinoko eta Txileko adituak Euskal Herrian

Euskararen egoera bertatik bertara ezagutu eta ladinoaren eta maputxearen berri eman dute

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gonbidaturik Euskal Herrian izan ziren Trentinoko eta Txileko ordezkariak joan den irailaren 17tik 21era. Hizkuntza gutxituak dituzten komunitateen arteko harremanak sendotzea izan zen bisitaren helburua, hizkuntza horien egoera hurretik ezagutu eta etorkizunerako ekintza-planak zehazteko. Trentinoko Hizkuntza Politikarako aholkulari Gino Fontana eta Txileko Hezkuntza Ministerioako koordinatzaile Javier San Miguel eta Carolina Huenchullán izan ziren bisitarien artean. *Berripapera*-ren galderei erantzun zizkieten. Gino Fontana izan zen erantzuten lehena.

Berripapera: Gino Fontana, zein dira zuen bisitaren helburuak?

Gino Fontana: Gauza guztien gainera, euskara sustatzeko politika eta programen berri izan nahi dugu. Gure herrian, Behe-Tiroleko Trentinon, hiru hizkuntza bizi dira elkarren ondoan: italiara, alemana eta ladinoa. Italiara Italian hitz egiten da, alemana Alemanian, Austrian eta Suitzan. Gehiengoaren hizkuntza dira biak. Ladinoaren kasua bestela da: 40.000 lagunek hitz egiten dute, eta gure lehen helburua ladino idatziaren estandarizazioa lortzea da, gero ikastetxetean ladinoaren irakaskuntza bultzatu ahal izateko.

B.: 40.000 lagunek hitz egiten dutela ladinoz diozu. Populazioaren zein ehuneko dugu?

G.F.: Populazioaren %5. Bestalde, hizkuntza ofiziala da. Maila ofiziala du gure herrian, eta nazioarteko sostengua du Bigarren Mundu Gerraz gero. Hori gauza handia da, eta abantailak ematen dizkigu.

B.: Eta biztanleek hizkuntzarekiko duten jarrera?
G.F.: Oso sentsibilizaturik daude, eta komunitateko partaide izateaz harro, batere dudarik gabe. Garbi esaten dute, eta esatea gustatzen zaie: "Ni ladinoa naiz". Euskaldunak bezala, esango nuke, harro dira komunitateko partaide direlako.

B.: Zein asmo duzue Txilen?

Javier San Miguel: Ongi zaindu ez den hizkuntza bat bultzatu nahi dugu: maputxea. Merezi duen prestigio eta zabalpena izan lezan nahiko genuke. Horretarako, lan handia egin beharko dugu hezkuntza-arloan, baina baita gizarte-politikan ere,



Gino Fontana, Trentinoko Hizkuntza Politikarako aholkularia

dela paisaje linguistikoa, dela zerbitzu publikoetan. Eta, jakinik zuek ekimen batzuk oso aurreratuak dituzuela arlo honetan, euskal esperientziarekin harremanetan jartzea erabaki genuen.

B.: Herriak bat egiten du zuen asmoarekin?

J. S. M.: Gure lehen nahia da maputxe-herriak bere hizkuntza garatzeko laguntza izan dezan. Txilen, maputxe ez direnek ere jarrera ona dute, jakin nahi dute hizkuntza horretaz, haien erabakiak onartzeko prest dira eta, ahal duten neurrian, ikasteko.

B.: Zein da Txileko hizkuntza-egoera?

J. S. M.: Gaztelania ez ezik, beste hiru hizkuntza ere ditugu bizirik Txilen. Iparraldean, aymara. Pasqua uharteetan, rabanui edo pascuera, hizkuntza polinesikoa. Eta mendikatearen eta itsasoaren artean, maputxea. Maputxeak gehiengo dira zonaldean, eta maputxea-hizkuntza, berriz, gehien erabiltzen dena. Baina hizkuntza polinesikoaren eta aymararen aldeko garapen-politikak ere nahiko genituzke.

B.: Lanean hasita zaudete, edo asmotan?

Carolina Huenchullán: 1996az gero Txileko Hezkuntza Ministerioak hainbat lan egin du, 1993an eman zen Lege Indigenaren markoaren baitan. Kulturarteko hezkuntza elebiduna landu du, adibidez. Ministerioak hizkuntzak ezagupen ofiziala izan dezan ez ezik, irakaskuntzaren hobetzea du helburu. Hargatik etorri gara hona, zuen eredu pedagogikoak ikustera, ez guk bere horretan erdutat hartzeko, erreferentzetan erabiltzeko baidiz.

Laburrak

Gabriel Arestiren poesia orkestraturik



Rafael Castro konpositoreak musika jarri dio Gabriel Arestiren poesiari. *Nora?* lana kaleratu zuten lehenengo bi lagunek, 1964an estreinatua, eta *Hutsunera*, bigarren, 1965ean. Orain *Lieder Vascos* heldu da, Arestiren hiru poesiaren gaineko konposizioa: *Noraren begi nabarrak*, *Noraren bisaia zime-la* eta *Noraren bihotz apala*.

Gabriel Arestiren poesiari musika jarri eta orkestratu ondoren, *Lieder Vascos* noiz estreinatuko zain da Rafael Castro.

EHU eta Egunkariaren graduondoko bi titulu

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informazio Institutuak eta Euskaldunon Egunkariak "Hizkuntza, Informazio eta Komunikazioa" izenburua duen graduondoko bi titulu eskainiko dituzte ikastaro honetan: unibertsitate masterra, alde batetik, eta unibertsitate espezialista, bestetik. Unibertsitatea eta enpresa mundua elkarlanean jarriko ditu master honek eta euskaraz izango da, lehenengo aldiz.

Masterrak bi urte iraungo du eta espezialista tituluak, berriz, urtebete. Informazio gehiago institutuaren idazkartzaren webgunean: www.sc.ehu.es/ilwlaanj/ilcli.html.

Agenda

Expolingua, Berlinen azaroan



Hizkuntzen eta Kulturen Nazioarteko Azoka Berlinen izango da aurten, azaroaren 16tik 18ra. Hizkuntzen azokarik nagusienetakoa da Expolingua eta 21 herrialdeetako 88 erakustoki bilduko ditu azaroan. Euskara ere bertan izango da, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Hizkuntza-ikastaroak, egonaldia atzerrian, material didaktikoa, software eta multimedia, literatura eta beste hainbat gai erakutsiko dira Berlinen.

PERTSONAJEA

Linda White: "EEBBetako euskaldunek askotan etsi egin dute beraien deituren aldaketaren aurrean"

Artikulu argitaratu du deituren amerikanizazioari buruz



ZALDIERO

Linda White (Kalifornia, 1943), Nevada-Renoko Unibertsitateko euskara irakasle da Center for Basque Studies-en. Euskara-ingelesa hiztegiaren egileetakoa, Gorka Aulestiarekin batera, eta euskaraz idatzi duten emakumeen gaineko tesiaren egile. Bestalde,

hainbat artikulu idatzi ditu euskal literaturako gaiak jorratuz. Oraindik orain, berriz, euskal deiturek EEBBetan jasan izan dituzten aldaketen berri eman du, Euskaltzaindiak kaleraturiko artikuluan.

Muga-arduradunen ezjakintasuna

Irakasle honen arabera, mugan bertan hasten ziren zailtasunak. Arduradunen ezinak ziren arrazoi nagusi. "EEBBetara heldu orduko, muga-arduradunak euskaldunen xehetasunak paper eta agirietan idazten hasten ziren baina ez zekiten zenbait deitura nola idatzi, eta idazkera asmatzen zuten. Entzuten zutena idazten zuten, besterik gabe. Beste batzuetan, euskaldunak etorri, muga-arduradunaren aurrean paratu eta deitura inork ezin zuela zuzen idatzi konturatu eta deitura laburtzen zuten".

Makuerkiaga, McErkiaga

Joan den mendeko kontuak dira. Inmigranteek New York jotzen zuten lehenengo: Ellis Island. Orain bisa-agiriak eskuan dituela etortzen da jendea, lanera edo eskolara. Baina orduan Ellis Island zen leku giltza. Horra heltzen zen jendea.

Linda Whitek hainbat adibide bildu ditu artikulu idatzi aurretik. Makuerkiaga, esate baterako, McErkiaga bihurtu izan da EEBBetan, eskoziar erara idatzirik. Irakasleak adierazi duenez, ingelesez hitz egiten dutenek horixe dute gogoan: "McDonald's, Mc hau, Mc hura. Hortaz, Makuerkiaga entzuten dutenean, McErkiaga interpretatzen dute". Horra aldaketa gertatua. Edo, beste adibide bat ematearren, Nevada-Reno Unibertsitateko irakasle ohi baten kasua: Magunagoi-koetxea. Nonbait, zailegi, luzeegi, ilunegi zuten estatubatuarrek deitura hori, eta Maguna besterik ez zuen erabili izan eskolan.

Goñi bat ere ez

Bestalde, ñ-a ere gorabehera dute EEBBetako euskaldunek. Ondorioz, Nafarroa Garaitik zein Beheretik Nevada eta Kaliforniara joandako Goñi denak "Goni" dira. Modu berean, ez da Braña deiturarik, ez Los Baños herririk: Brana da deitura, eta Los Baños herria. Eta Linda Whiteren oharra: "Beste aldaketa bat. Azkenerako, euskaldunek ere etsi eta onartu besterik ez dute".

XAGUX@RRAK: DONATOREN TERTULIA

40 ikastetxe bisitatuko ditu aurten kanpainak

Abian da bigarren urtez *Xagux@rrak: Dona-toren tertulia*, irakurzaletasunaren aldeko kanpaina ibiltaria. Bigarren aldi hau irailaren 17an hasi zen oinez, Iruñeko Jaso ikastolan. Ikasturte honetan, bestalde, hainbat aldaketa izango ditu kanpainak. Aldaketa horietarik batzuk programaren egiturari dagozkio. Esaterako, ikastetxean egiten den saio-kopurua murriztu egin da: bost egin izan ziren iaz, eta lau egingo dira aurten. Saioen edukiak ere egokitu egin dira eta moldaketak egin dira A erudian ari diren ikasleentzako saioetan.

Beste aldaketa bat txanda kopuruari buruzkoa da. Aurten, txanda bakarra egingo da ikastetxeetan. Ondorioz, ikastetxe gehiagotara iritsi ahal izango da Xagux@arrak autobusa. Eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetara joateaz gain, Nafarroara ere joango da. Ipar Euskal Herriko ikastetxeek ere autobusaren bisita eskatzeko aukera dute. 40 ikastetxe bisitatuko ditu ikasturte honetan, kanpainak.

Ondoko mapan ezarritik daude Xagux@arrak autobusak bisitatuko dituen herriak.



• Jaso Ikastola	Iruñea	• Gernika BHI	Gernika
• Andra Mari Ikastola	Etxarri-Aranaz	• Juan Orobogitia BHI.....	Jurreta
• Zangotzako Ikastola	Zangotza	• Urritxe BHI	Zornotza
• Tafallako Ikastola	Tafalla	• Andra Mari BHI	Galdakao
• Argia Ikastola	Tutera	• Urbi Institutua	Basauri
• Assa Ikastola	La Puebla Labarka	• Koldo Mitxelena Institutua.....	Errenteria
• Koldo Mitxelena BHI.....	Gasteiz	• Pasaia-Lezo Lizeoa.....	Pasaia
• Laudio Ikastola.....	Laudio	• Antoniano Ikastetxe Politeknikoa	Zarautz
• Itxaropena Ikastola.....	Trapagaran	• Lizardi BHI	Zarautz
• Beurko BHI	Barakaldo	• Mogel Isasi BHI.....	Eibar
• Erandio BHI	Erandio	• San Jose Ikastetxea.....	Tolosa
• Jose Miguel Barandiaran BHI.....	Leioa	• Eskolapien Ikastetxea.....	Tolosa
• San Nikolas Ikastola	Getxo	• Uzturpe Ikastola.....	Ibarra
• Jado Compasión Ikastetxea.....	Erandio	• Aralar BHI.....	Alegia
• Zurbaran BHI.....	Bilbao	• Loiazpe BHI.....	Beasain
• Luis Briñas Ikastetxea	Bilbao	• Kurtzebarri BHI.....	Aretxabaleta
• Deustuko Ikastola.....	Bilbao	• Aranzadi Ikastola	Bergara
• San Inazio BHI.....	Bilbao	• M. Lagundia Ikastola	Bergara
• R.M. Azkue Ikastola	Lekeitio	• Xabier Munibe BHI.....	Azkoitia
• Zubizahar Ikastola.....	Ondarroa	• Maria eta Jose.....	Zumaia



Euskara ikasteko dirulaguntzak Donostian

Udal Patronatuak gure hizkuntzaren erabilera indartu nahi du

Euskararen erabilera indartzeko bidean hainbat aukera eskaintzen ditu Euskararen Udal Patronatuak Donostian, eta euskara ikasteko dirulaguntzak ematen dizkie bertako unibertsitarioei, langabetuei, famili transmisioaren oinarri diren guraso, hezitzaile, pediatra eta gainerako profesionaleri, zerbitzu-enpresetako langileei, elkarteetako zuzendari, monitorea, idazkari eta bazkideei...

Dirulaguntza jasotzeko, herritarrek euskaltegi batean eman behar du izena, matrikula egin, eta dirulaguntza eskaera egin, irailaren 24tik urriaren 15era bitartean.

Ikasturte amaieran, Patronatuak ezarritako baldintzak betez gero, ikasleak dirulaguntza jasoko du.

